



# **INKLUSIORAKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA, HAUR ETA NERABEENGAN ETA FAMILIARENGAN DUEN ERAGINA EBALUATZEARI DAGOKIONEZ.**

## **1. Hitzaurrea**

Txosten hau Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lege-aurreproiektua izapidetzeko egiten da.

Eta hori guztia Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea betetzeko, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari 22 quinquies artikulua gehitzen baitio, eduki honekin: *«Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren araudi-inpaktuaren azterketen memoriek araudiak haur eta nerabeengan duen inpaktua jaso beharko dute»*. Gainera, "Arauek familian duten eragina" izeneko hamargarren xedapen gehigarria gehitzen dio Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeari, eta honako hau ezartzen du: *«Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren araudi-inpaktuaren azterketen memoriek araudiak familiengan duen inpaktua jaso beharko dute»*. Aldi berean, arau-ekimenaren 2. zirriborroa egin da, eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidean jasotako alegazioak eta ekarpenak jaso dira.

## **2. Arauaren identifikazioa**

### **2.1 Arauaren izena**

Inklusiorako eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemaren legearen aurreproiektua

### **2.2 Arauaren jatorria**

Azken urteotan, diru-sarrerak bermatzeko eta gizartean zein lan-munduan txertatzeko ezarritako neurrien eraginkortasuna erasanda gertatu da bi krisi sakon direla medio, 2008koa eta COVID-19aren ondoriozko egungo krisia. Bi krisi horiek eragin nabarmena izan dute herritarren gizarte-eta lan-baldintzetan eta ondorio kaltegarriak ekarri dituzte pobrezia eta gizarte-bazterketa eragin dituzten neurrian.

Hala, iraupen luzeko langabeziaren ondorioei, hainbat migratzaileraren baliabide-faltari, emakumezkoek pairatzen duten bazterketa-arriskuari eta pentsiodun batzuen baliabide ekonomiko eskasiari, enplegu-modu prekarioenetatik eratorri diren hainbat egoera gehitu behar zaizkie, eta, horien guztien ondorioz, nabarmen hazi da babes premian dauden pertsona-kopurua.

COVID-19ak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eraginari buruzko txostenaren arabera — Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak berriki argitaratu du—, krisi honen eragin ekonomikoak ez du aurrekaririk, eta nazioarteko shock bat eragin du, bai eskaintzari dagokionez, bai eskariari dagokionez, eta ziurgabetasun handiko ingurunea ekarri du.

Arazo horiei guztiei gehitzera datoz egun indarrean dagoen araudiaren mugak eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren agerpena, Gizarte Segurantzaren prestazio berri horren helburuek — zeinaren kudeaketa osoa, aurreikuspenen arabera, EAEri transferituko zaion— partzialki bat egiten baitute Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren helburuekin.

Azaldutakoa dela eta, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osatzen duten neurriak egokitu behar dira, sistema Euskadiko ongizate-eredu orokorraren zati gisa normalizatzeko. Horrela, DSBEaren prestazioaren diseinua egungo testuinguru sozioekonomikora egokitu ahal izango da, prestazioen estaldura hobetu, urteetan zehar agerian geratu diren disfuntzioak zuzendu eta BGDSaren kudeaketa txertatu.

Aipatutako arazoei, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea argitaratu zenetik igarotako denborak —eta, ondoren, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez egindako aldaketa—, bai eta BGDSa sortzeak eta haren kudeaketaren transferentziak ere, beharrezko egiten dute alderdi horiek guztiak gizarte-kohesioan bilduko dituen arau bat egitea.

Helburua izango da, alde batetik, hobetzea diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen prestazio ekonomikoen estaldura eta eskuragarritasuna eta, bestetik, lan- eta gizarte-bizitzan moldatzeko zailtasunak dituzten euskal herritarrei eskurago jartzea kalitateko gizarte- eta enplegu-zerbitzuak. Horretarako, lege honen helburu nagusia da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osoaren funtzionamendua egokitzea indarrean dagoen esparru arauemailea onartu zenetik EAEko gizartean izan diren aldaketa sakonetara.

Gainera, gaur egun behar bezala babestuta ez dauden biztanleria-segmentu jakin batzuetara iritsi nahi da, eta **arreta berezia jarri behar zaie beren ardurapean seme-alabak dituzten familia behartsuei**, eta, aldi berean, egoera bereziki ahulei eta pentsiodunen espezifikotasunari.

Proposamenak indartu egiten du Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren eredua, **diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako eskubide bikoitzaren ikuspegitik**, eta, aldi berean, jarduera ekonomikoa sustatzen du eta sistema osatzen duten prestazioak eta zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen gizarte- eta lan-inklusioa sustatzen du. Horretarako, hasierako diagnostikoa ahalbidetuko duten tresnak proposatzen ditu, pertsona bakoitzari egokitutako ibilbideak definitzea –haren ezaugarriak kontuan izanda– erraztuko duen "bereizketa" baten bidez.

Hori guztia ebaluazioan eta ezagutzan oinarritutako berrikuntzak ezartzearen ikuspegitik egin nahi da, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema europar esparruko gizarte-politiken abangoardian mantentzea ahalbidetu dezaten.

Araua egitearen azken jatorria, beraz, hauxe da: 80ko hamarkadako krisiaren ondoren Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarritako eredua babestu eta hobetzeko beharra, datozen urteetan haren legitimitate soziala eta iraunkortasun ekonomikoa bermatuta. Abiapuntu horrekin, lege hau prestatzeko, oinarrizko irizpide hauei jarraitu zaie:

- Diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren **ikuspegi familiar eta haurren aldekoa** sakontzea eta, horren ildotik, **haurren pobreziaren kontra eta bazterketa soziala belaunaldi batetik bestera pasatzearen kontra egiteko ahala sendotzea**.
- Prestazioa kalkulatzeko sistema doitzea, **bermatutako zenbatekoen nahikotasuna eta arrazionalizazioa ziurtatuta, batez ere familia handien kasuan**.
- **Gaur egun egoki babesten ez diren beharrei eta kolektiboari emandako arreta** hobetzea, denek eduki ditzaten sistema erabiltzeko aukera berak.
- Enplegu-zerbitzuen lan-arloko konpainia egitea eta **gizarte-zerbitzuen gizarte-arloko konpainia egitea indartzea, diagnostiko-, estratifikazio- edo segmentazio-prozedurak sartuta**. Prozedura horiek bidea eman behar dute onuradunen beharrak identifikatzeko eta premia horiek beharrezkoak dituzten laguntza-zerbitzuak agintzeko.
- **Bizikidetza-unitatearen (BU) kontzeptua** argitzea. Horretarako, bermatzea etxebizitza berean bizi diren bizikidetza-unitate guztiek prestazioak jasotzeko aukera izan dezatela eta, aldi berean, mekanismo egokiak ezartzea, kontuan hartuko dituztenak familia-unitate batek baino gehiagok etxebizitza bera partekatzen dutenean sortzen diren eskalako ekonomiak eta sustatuko dutenak familia-loturarik gabeko pertsonak pertsona anitzeko unitateetan elkar daitezen.
- Prestazioen **kudeaketa eraginkorragoa erraztea**: erabiltzaileek bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko duten eskubidea aitortzea, erantzukizunpeko adierazpenen

bitartez sarbidea erraztea, zenbatekoak eguneratzeko prozedurak eta prestazioen kontrola arrazionalizatzea eta hartzaileen segurtasun juridiko handiagoa bermatzea.

- Onuradunen lan-aktibazioa bultzatzea, euskal enpresak eta ekonomia solidarioa bazterketaren aurkako borrokan inplikatzeko sustatuta.
- Enplegua saritzeko egiturazko sistema bat finkatzea, pobreziaaren tranpa saihesteko eta enpleguak pobrezia erantzuteko.
- Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko sistema osoaren governantza hobetzea, administrazio eskudun guztiek eta Hirugarren Sektore Sozialak kudeaketan parte har dezaten erraztuta.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusiorako politikak finkatzea, gaur egun egiten diren ikerketak, berrikuntza, ebaluazio, hedapen, analisi eta prestakuntzak jarduerak egonkortzeko, arautzeko eta bultzatzeko mekanismoak indartuta, esparru horretako I+G+b arloko estrategia zabalago baten barruan.

### 3. Arauek eskubideen, premien eta taldeen gainean izango duen eragina identifikatzea.

#### 3.1 Arauek haurren zer eskubide zehatzi eragin diezaiokien.

Arauen xedea, 1. artikuluan definitutakoa, honako hau da: "*Pertsonen bazterketa-arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonaleko, sozialeko eta laboreko egoerak arintzea, bizitza duinaren garapena bermatzea eta behar adina baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomikorik ez dutenak gizartean erabat sar daitezela sustatzea". Hori dela eta, arauak, printzipioz, zuzeneko zein zeharkako eragin positiboa izango du haurren eskubideengan, eta eskubideok aukera zabala osatzen dute; izan ere, *a priori*, honelaxe zehaztu dezakegu aukera hori:*

##### 3.1.1 Haurren Eskubideen Konbentzioa egituratzen duten oinarritzko lau zutabe:

- **Haurraren interes gorenaren printzipioa** –inguruneari, hezkuntzari, elikadurari eta abarri dagokienez ongizaterako behar duten guztia– arauaren artikuluko guztietan islatzen da. 3. artikuluko, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren printzipioak jasotzen dituenak, f) letran ezartzen du printzipio informatzaile horietako bat "*haurren babesa*" dela. *Euskal politika publikoaren osotasunarekiko koherentzia, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak lagundu egingo du pobreak haurrengan duen eragina prebenitzea eta arintzea*. Printzipio horren berri eman du, bereziki, arau-testuaren idazkerak. Haurrak bereziki babesteko helburua hainbat neurriren bidez adierazten da, prestazioak eta

zerbitzuak eta adingabeek osatutako bizikidetza-unitateen baldintzak eskuratzea errazten dutenak.

- **Bizitzeko eskubidea**, ekimen arauemaile honetan, bizitza duina izateko eskubidea da, hazten eta garatzen diren gizartearekin bat etorritz.
- **"Diskriminaziorik ezaren" printzipioa**, ikuspegi bikoitzetik. Batetik, baldintzak betetzen dituzten eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsona guztiei zuzentzen zaie araua, adingabeek osatutako bizikidetza-unitateen artean inolako bereizketarik egin gabe. Bestalde, helburua gizarte-kohesio handiagoa lortzea da, arauaren hartzailen eta gizartearen gainerakoen arteko baldintza-berdintasuna sustatuz.
- **Haurrek eskubidea dute** eragiten dieten egoeretan **parte hartzeko** –gutxienez, "entzunak" eta "adituak" izateko eskubide gisa ulertuta–, haien beharrak eta inguruabarrak kontuan hartzeko. Egia da haurren parte-hartze hori ez dela zuzenean jasotzen, baina bizikidetza-unitateko kide gisa 4. artikuluan definitutako arreta-ereduaren onuradun izango dira: *“arreta profesionala, pertsonalizatua, malgua, integratua, etengabea, aurrerapen teknologikoez baliatuko dena, komunitate- eta hurbiltasun-ikuspegia eskainiko duena eta prebentzio-jarduerei eta ohiko inguruneko arretari lehentasuna emango diena, betiere posible eta komenigarri bada”*. Eredu horretan eta 108. artikulutik 110. artikulura bitartean definitutako banakako diagnostikoan ("bereizketa") oinarrituta, egoera bakoitzerako ibilbide eta zerbitzu egokiak ezarriko dira. Era berean, 9. artikulua, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Sozialaren prestazio, laguntza eta zerbitzuen titularren eta onuradunen eskubideei buruzkoak, 1.c) apartatua honako eskubide hau ezartzen du: *"Arreta pertsonalizatua, integratua, goiztiarra eta malgua jasotzea, banakako, familiako eta komunitateko alderdiak kontuan hartuta"*.

### 3.1.2 Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako eskubide bikoitza aitortzea.

- a) Egituratzten diren prestazio ekonomikoen bidez –eskubide subjektibokoak, bai eta asistentzialak ere, dirulaguntzarik gabekoak (gizarte-larrialdietarako laguntzak, GLL)–, helburua da baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden familien oinarritzko premiak asetzea.

15. artikulua diru-sarrerak bermatzeko errenta definitzen du.: “bizikidetza-unitate bateko kideari edo kideei aitortutako prestazio ekonomikoa jasotzeko **eskubide subjektiboa**, baldin eta bizikidetza-unitate horrek diru-sarrera nahikorik ez badu

oinarrizko premiei lotutako gastuei eta lan-inklusionarako edo gizarte-inklusionarako prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egiteko.”

49. artikulua GLLak definitzen ditu: “gizarte-larrialdietarako laguntzak pertsona hauei zuzentzen zaizkie: gizarte-bazterketako arriskua edo egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren berariazko gastuei —ohikoei edo ezohikoei— aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutenei.” Gainera, 2. puntuan, diruz lagundu daitezkeen gastuak definitzen ditu: ohiko etxebizitza edo bizitokia izateko eta mantentzeko beharrezkoak direnak, sistema publikoek asetzen ez dituzten lehen mailako premiei dagozkienak (jantziak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-arreta), aurreko kontzeptuetako bati lotutako zorpetze-gastuak edo bizitzako oinarritzko premiei erantzuteko beharrezkoak diren gastuak.

- b) Gizarte- eta lan-inklusionarako eskubidea BUri zuzendutako hainbat neurri ezartzean zehazten da, bai gizarte-arlokoak, bai lan-arlokoak, azken horiek enplegarriak diren pertsonen enplegura bideratuta. 2. artikulua honela definitzen du Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema: *"Inklusio-politika sustatu eta garatzeko beharrezkoak diren egitura, prestazio eta zerbitzuen multzoa"*. Egitura honako hauek osatzen dute: *"Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, gizarte-zerbitzuek eta, beharrezkoa denean, hezkuntza-, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuek."*

Beraz, bizikidetzaren unitate bakoitzari egokitutako ibilbide bat ezarriko da, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiak kontuan hartuta. Ibilbide horrek inklusioa sustatzeko edozein neurri-mota jasoko du, eta unitatean dauden adingabeen eta, beraz, familiaren eskubideen gainean eragingo du, zuzenean edo zeharka.

II. lerroan, 7. artikulua lan- eta gizarte-inklusionara bideratutako zerbitzuak jasotzen ditu: *"a) Egoera eta beharrak baloratzeko tresnak; b) Inklusionarako Programa Integratu eta Pertsonala (GPIP); c) Enplegarritasuna babesteko eta hobetzeko zerbitzuak; d) Gizarte-inklusiona sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuak; e) IPIPrek esparruan esku hartzeko beste neurri espezifiko batzuk"*.

Aurreko paragrafoetan azaldutako guztia **hainbat eskubidetan islatzen da**, besteak beste:

Eskubideak egingarri egitea, eskuera dauden baliabideen maila goreneraino

Ez soilik testuak artikulatutako prestazio ekonomikoetan eta zerbitzuetan oinarrituta, baizik eta Inklusionarako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal

Sistema Soziala osatzen duten zerbitzuen bidez (2. artikuluan jasoak) betetzen direnekin lotutako zenbait eskubiderekiko loturagatik. Ildo horretan, 9. artikulua, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Sozialaren prestazio, laguntza eta zerbitzuen titular eta onuradunen eskubideak jasotzen dituenak, 2. puntuaren arabera, EAEko administrazio publikoek zenbait eskubide aitortzea sustatuko dutela, hala nola etxebizitza, lana eta familia bateragarri egitea, zelan eta haur-hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxe publikoetan plazak izatea, hezkuntza-etapa guztietan ikasteko laguntzak eta bekak ematea, Euskadiko Osasun Sistemako zerbitzu-zorroko prestazioak ematea eta aisialdiko eta kiroleko udal-zerbitzuetarako sarbidea bermatuz."

- Bizitzeko, bizirik irauteko eta garatzeko eskubidea
- Garapenerako bizitza-maila egokia izateko eskubidea
- Osasunerako eskubidea –modu holistikoa ulertuta–. Alde horretatik, hainbat azterlanek agerian utzi dute zuzeneko lotura dagoela prestazio horiek jasotzearen eta bizi-kalitatearen, gizarte-harremanen, osasun-egoeraren eta, are, hilkortasunaren adierazleen artean. Logikoa denez, eta, arrazoi handiagoz, haurren eta nerabeen ahultasuna dela eta, aurreproiektuan artikulatutako mekanismoek euren oinarrizko beharrianetan zuzenean (zuzenean eurei zuzendutako prestazioak eta zerbitzuak) eta zeharka (integratzen diren familia- edo bizikidetza-eremuari zuzendutakoak) eragingo dutela aurreikusten da, ingurune egonkorragoak eta seguruagoak sustatuz, horietan hazteko eta garatzeko.
- Hezkuntzarako eskubidea –modu globalean ere ulertuta, hau da, ez soilik hezkuntza jasotzeko eskubidea, baizik eta hezkuntza hori bultzatzea eta euts dezaketen familia-inguruneetan garatu ahal izateko eskubidea, Haurraren Eskubideen Adierazpenaren VII. printzipioa betez“(…). *Bere kultura orokorra bultzatuko duen hezkuntza emango zaio, eta, aukeraberdintasunean, bere gaitasunak eta bere iritzi indibiduala, erantzukizun moral eta sozialaren zentzua garatzeko eta gizarteko kide erabilgarri izateko aukera emango dio*".

### 3.1.3 Beste eskubide batzuk

Beste eskubide batzuk, egoera zehatzagoei lotuak, artikuluetan islatzen dira:

- Abandonu-mota ororen edo tratu txarren biktima diren haurren berreskuratze- eta gizarteratze-eskubidea
- Beste esplotazio-moduen aurka babesa izateko eskubidea
- Haur errefuxiatuen eskubideak
- Desgaitasuna duten haurren eskubideak:

Nahiz eta testuak ez dituen eskubide horiek jasotzen, artikuluetan babestuta daude. Hau da, bereziki kalteberak diren egoerak babesten dira, baldin eta adingabeak egoera horietan egon badaitezke, nahiz eta ezarritako kasuistika bizikidetza-unitateko titularrei buruzkoa izan. Larritasun handiko egoerek larriki eragiten diete bizikidetza-unitate horietako haurrei.

26. artikuluan (bizikidetza-unitate bereziak), kalteberatasun bereziko egoerak deskribatzen dira, hala nola, gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimenak, genero-indarkeriarenak eta etxeko indarkeriarenak. Artikulu horren 3. puntuak ezartzen duenez, bizikidetza-unitate horiek *"(...) eta betiere haiekin batera badaude, seme-alabek edo adopzio-helburuko zaintza edo familia-harrera iraunkorreko araubidean dauden adingabeek"* osatuko dituzte.

**Mota horretako unitateak eratzeko baldintzak malgutu egiten dira**,osatzen dituzten pertsonen babes handiagoa emateko. Adingabeen kasuan, diru-sarrerak bermatzeko eskubidea indartzeaz gain, ongizate emozionalaren eta fisikoaren ikuspegitik babes gehigarria ere ematen du, arrisku-egoera horietatik urrunduz eta oinarritzko premiak eta inklusiorako gainerako zerbitzuak betetz.

Hala, 17., 18. eta 19. artikuluetan, honakotzat jotzeko baldintzak ezartzen dira: errefuxiatuak, gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak, genero-indarkeriarenak eta etxeko indarkeriarenak, eta adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei edo bizitza independentea prestatzeko programetan parte hartu duten pertsonen gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende dauden pertsonak, terrorismoaren biktimak eta euskal gizataldeetako kideak eta erabateko umezurtzak, salbuespenezko bizikidetza-unitateetako kideak, desgaitasuna duten pertsonak eta 18 eta 23 urte bitarteko pertsonak.

### 3.2 Arauak haurren oinarritzko zer premiari eragin diezaiokeen.

Aurreko paragrafoetan deskribatu dira arauak zuzenean eragingo dien haurren oinarritzko premiak.



### **3.3 Arauak haurren, nerabeen eta familien talde jakinen gainean izan dezakeen eragin berezia.**

XII. legegintzaldirako (2020-2024) gobernu-programaren esparruan, I. ardatzaren barruan, Oparotasuna: Enplegua eta suspertze ekonomikoa 11. konpromiso gisa ezartzen da –esklusioaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea–, garapen iraunkorreko helburuen barruan: 1.a, Pobreziaren amaiera eta 10.a, Desberdintasunak murriztea. Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren erreforma 2020-2024 programaren printzipioetako batzuk lortzeko funtsezko tresnetako bat da: "inor atzean ez uztea".

Nahiz eta arauaren xede den taldea zuzenean zehaztu daitekeen bazterketa-arriskuan dauden egoeretan, arreta berezia jarritz haurren babesean, kontuan izan behar da, alde batetik, arrisku horrek edozein pertsonari eragin ahal diola bizitzan zehar. Eta, bestetik, gizarte "kohesionatua" lortzeko borondateak eragin ona izan beharko zuela gizarte osoan. Inor atzean uzten ez duen eta sistema inklusibo baten inguruan eraikitzen den gizarte batek kohesio horren onura jasoko du.

Aurreko paragrafoetan deskribatu bezala, aldiz, sisteman sartzeko baldintzak malgutu egiten dira egoera bereziki ahulean dauden pertsonentzat.

## **4 Arauak haurren, nerabeen eta familien gainean izango duen eraginaren analisia.**

### **4.1 Abiapuntuko egoera**

Diru-sarrerak bermatzeko politikak ahalbidetu du, aurreko 30 urteetan, 2008ko krisialdian eta COVID-19tiko egungoan Euskadin eragina izan duten beheranzko mugikortasun-prozesuek pobrezia-egoera larrienak nabarmen ez areagotzea.

Hala ere, honako hauek dira babesa behar duten pertsona gehiago izatea ekarri duten faktoreen adibide batzuk: langabeziak gora egitea, iraupen luzeko langabeen kopurua igotzea, migranteek baliabide pertsonalik ez izatea, bazterketa-arriskua feminizatzea edo baliabide ekonomiko urriak dituzten pentsiodunen egoera. Soldata txikiak dituzten pertsonen laguntzen saiatzen den sistema baten testuinguruan, errealitate hori areagotzen ari da enplegu-modu prekarioenak hazi direlako, bai aldi baterako kontratazioari dagokionez, bai denbora partzialeko kontratazioari dagokionez. Horiek nabarmen eragiten diote kualifikazio txikieneko biztanleriari.

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2020ko Inkestaren (PGDI) datuen arabera<sup>1</sup> – berriki argitaratu du Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak –, gaur egun, benetako pobrezia-arriskuan dauden eta sistemak artatzen dituen adingabeen ehunekoa % 70,59ra baino ez da iristen, eta horietako asko hortik kanpo geratzen dira, neurri handi batean, indarrean dagoen legedian ezarritako muga dela eta; izan ere, pertsona kopuru jakin bat baino ezin da izan prestazioen onuradun. Hala ere, araudi berriarekin muga hori ezabatu egiten da.

Egungo gizarte-testuingurua ulertzeko, 2020ko <sup>2</sup>ekainetik irailera bitarteko datuak biltzen dituen inkesta horren arabera, honako hau kalkulatzeko da Euskadiko 18 urtetik beherako biztanleei dagokienez:

- 18 urtetik beherakoak dituzten familia-etxeak/bizikidetza-unitateak 214.214 dira
- etxe horietan 18 urtetik<sup>3</sup> beherakoak 347.635 dira.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Sozialaren hartzaile izan daitezkeen pertsonak testuinguruan kokatzeko, datu hauek ez dute benetako pobrezia-arriskuan dauden biztanleen ikuspegi kuantitatiborik ematen.

### **DSBE jaso aurretik benetako pobrezia-arriskuan<sup>4</sup> dauden adingabeak etxean dituen biztanleria**

#### **Biztanleak orohar etxe horietan:**

|                                                          |         |
|----------------------------------------------------------|---------|
| Datu absolutuak                                          | 107.952 |
| % gizarte osoari dagokionez                              | 4,98    |
| % gizarte osoari dagokionez adingabeak dituzten etxeetan | 13,33   |

#### **Adingabeak etxe horietan**

|                                                          |               |
|----------------------------------------------------------|---------------|
| Datu absolutuak                                          | <b>52.268</b> |
| % gizarte osoari dagokionez adingabeak dituzten etxeetan | % 6,45        |

<sup>1</sup> OHARRA: Datuak erreferentziako hilabeteko egoerari dagozkio. Ez dira sartzen prestazioak izapidetzeko bidean dauden eta etorkizunean horiek eskura ditzaketen pertsonak, erreferentziako oraingo hilabeteari lotutako laguntzak jasotzen baitituzte

<sup>2</sup> Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren (PGDI) helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziari eta ongizaterik ezari buruzko adierazleak aztertzea, lehentasunez azpimarratuta Europar Batasunean (EB) erabiltzen direnak eta PGDIan berariaz sartutakoak. Biztanleen arteko baliabideen banaketari epe ertain eta luzean eragiten dioten egiturazko joera nagusiak ere kontuan hartzen ditu txostenak. Era berean, pobrezia eta prekarietatea Euskadiko hiru lurraldeetan eta eskualdeetan nola banatzen den ere aztertzen da.

<sup>3</sup> Haur eta nerabeenganako eragina aztertzea helburu duen txosten honen ondorioetarako, 18 urtetik beherako pertsona guztiak hartu dira kontuan.

<sup>4</sup> Benetako pobrezia-arriskuan dauden etxeetan bizi diren biztanleak. Honako hauek sartzen dira:

a) Benetako pobrezia-egoerak dituzten pertsonak (diru-sarrerak, ondarea eta bizi-baldintzak PGDI metodoaren bidez)

b) Prestazio-sistema eskuratzeko arazo diren arazo ekonomikoei aurre egin behar dieten beste pertsona batzuk.

Batzuetan, mantentze-pobreziaren/diru-sarreraren pobrezia-arriskuari buruzko datuak ematen dira, diru-sarrerak soilik kontuan hartuta.

% adingabe guztiei dagokienez adingabeak dituzten etxeetan

% 15,04

Ikus dezakegunez, EAEko adingabeen % 15,04 egoera horretan dago, eta egoera horretatik ondorioztatzen da proposatzen den araudiak kontuan hartu behar duela kalteberen artean kaltebera den segmentu hori babestu behar dela eta kasuan kasuko neurriak hartu, bazterkeria-egoera arintzeko ez ezik, inklusioa sustatzeko eta dauden sorgin-gurpiletik irtetea bultzatzeko ere.

|                       | Sistemara<br>sarbidea duten<br>eta pobreziatik<br>ateratzen diren<br>adingabeak | Sistemara<br>sarbidea duten<br>eta pobreziatik<br>ateratzen ez<br>diren<br>adingabeak | Benetako<br>pobrezian<br>dauden<br>adingabeak,<br>sistemarako<br>sarbiderik<br>gabe | Pobrezia-<br>arriskuan |
|-----------------------|---------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|------------------------|
|                       | Abs.                                                                            | Abs.                                                                                  | Abs.                                                                                | Abs.                   |
| 4 urte baino gutxiago | 3.444                                                                           | 5.737                                                                                 | 6.023                                                                               | 15.204                 |
| 5-9 urte              | 4.395                                                                           | 7.415                                                                                 | 4.530                                                                               | 16.340                 |
| 10-13 urte            | 2.947                                                                           | 4.969                                                                                 | 2.363                                                                               | 10.279                 |
| 14 -17 urte           | 2.388                                                                           | 5.603                                                                                 | 2.454                                                                               | 10.445                 |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>13.173</b>                                                                   | <b>23.725</b>                                                                         | <b>15.371</b>                                                                       | <b>52.268</b>          |

Datuen arabera, sistemak zaindutako adingabe horien % 35,70ek pobreziatik irtetea lortzen du gaur egun.

|                                                                                                                                         |        |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|
| <b>DSBE JASOTZEN DUTENAK</b>                                                                                                            |        |
| <b>Sisteman artatutako biztanleria, adingabeak dituzten etxekoek unitateetan</b>                                                        |        |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetan artatutako biztanleria guztira                                                                 | 72.967 |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetako guztizko biztanleriarekiko %-a                                                                | 9,01   |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetan benetako pobrezia-arriskuan dauden guztizko biztanleriarekiko %-a                              | 67,59  |
| <b>Sisteman artatutako etxekoek unitate horietako adingabeak</b>                                                                        |        |
| Artatutako adingabeak guztira                                                                                                           | 36.897 |
| Adingabe guztien %                                                                                                                      | 10,61  |
| Benetako pobrezia-arriskuan dauden adingabeen gaineko %-a                                                                               | 70,59  |
| <b>EZ DIRA POBREZIATIK ATERTZEN</b>                                                                                                     |        |
| <b>Sisteman arreta jasotzen duten eta pobreziatik ateratzen ez diren adingabeak dituzten etxekoek unitateetako biztanleak</b>           |        |
| Adingabeak dituzten eta pobreziatik ateratzen ez diren etxekoek unitateetan artatutako guztizko biztanleria                             | 46.563 |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetako guztizko biztanleriarekiko %-a                                                                | 5,75   |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetan benetako pobrezia-arriskuan dauden guztizko biztanleriarekiko %-a                              | 43,13  |
| Adingabeak dituzten eta sistemak artatzen dituen etxekoek unitateetan benetako pobrezia-arriskuan dauden guztizko biztanleriarekiko %-a | 63,81  |
| <b>Etxekoek unitate horietan dauden adingabeak, sisteman zaintzen direnak eta pobreziatik ateratzen ez direnak</b>                      |        |
| Zaindutako eta pobreziatik ateratzen ez diren adingabeak guztira                                                                        | 23.725 |
| Adingabe guztien %                                                                                                                      | 6,82   |
| Benetako pobrezia-arriskuan dauden adingabeen gaineko %-a                                                                               | 45,39  |
| Benetako pobrezia-arriskuan dauden eta sistemak artatzen dituen adingabeen %-a                                                          | 64,30  |
| <b>POBREZIATIK IRTETEN DIRA</b>                                                                                                         |        |
| <b>Sisteman arreta jasotzen duten eta pobreziatik ateratzen diren adingabeak dituzten etxekoek unitateetako biztanleak</b>              |        |
| Adingabeak dituzten eta pobreziatik ateratzen diren etxekoek unitateetan artatutako guztizko biztanleria                                | 26.404 |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetako guztizko biztanleriarekiko %-a                                                                | 3,26   |
| Adingabeak dituzten etxekoek unitateetan benetako pobrezia-arriskuan dauden guztizko biztanleriarekiko %-a                              | 24,46  |
| Adingabeak dituzten eta sistemak artatzen dituen etxekoek unitateetan benetako pobrezia-arriskuan dauden guztizko biztanleriarekiko %-a | 36,19  |
| <b>Etxekoek unitate horietan dauden adingabeak, sisteman zaintzen direnak eta pobreziatik irteten direnak</b>                           |        |
| Zaindutako eta pobreziatik irteten diren adingabeak guztira                                                                             | 13.173 |
| Adingabe guztien %                                                                                                                      | 3,79   |
| Benetako pobrezia-arriskuan dauden adingabeen gaineko %-a                                                                               | 25,20  |
| Benetako pobrezia-arriskuan dauden eta sistemak artatzen dituen adingabeen %-a                                                          | 35,70  |



Egindako azterketen arabera, sistema osatzen duten prestazioek pobrezia murrizteko duten gaitasunaren azterketak adierazten duenez, DSBE prestazioa jaso ondoren, hartzaileen pobrezia-tasak murriztu egiten dira eta, batez ere, familia horiek pairatzen duten pobrezia-aren intentsitatea murrizten da, hau da, onuradunen benetako diru-sarreraren eta pobrezia definitzen duten atalase ekonomikoen arteko aldea murrizten da.

**Benetako pobrezia eragina murrizketa, adingabeak dituzten etxeko unitateetan**

| Etxe horietako biztanleria, guztira. Benetako pobrezia                                   | DSBE/EPO/GLL gabe | DSBE/EPO/GLLein | Murrizketa %-tan |
|------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|-----------------|------------------|
| Datu absolutuak                                                                          | 107.952           | 81.548          | -24,5            |
| Adingabeak dituzten etxeko unitateetako guztizko biztanleriarekiko %-a                   | 13,33             | 10,07           |                  |
| <b>Adingabeak etxe horietan</b>                                                          |                   |                 |                  |
| Datu absolutuak                                                                          | 52.268            | 39.095          | -25,2            |
| Adingabeen %-a adingabeak dituzten etxeko unitateetan                                    | 15,04             | 11,25           |                  |
| <b>Diru-sarreraren pobrezia eragina murriztea adingabeak dituzten etxeko unitateetan</b> |                   |                 |                  |
| Población total en esos hogares. Pobreza de mantenimiento/ingresos                       | DSBE/EPO/GLL gabe | DSBE/EPO/GLLein | Murrizketa %-tan |
| Datu absolutuak                                                                          | 114.948           | 96.844          | -15,7            |
| Adingabeak dituzten etxeko unitateetako guztizko biztanleriarekiko %-a                   | 14,19             | 11,96           |                  |
| <b>Adingabeak etxe horietan</b>                                                          |                   |                 |                  |
| Datu absolutuak                                                                          | 55.092            | 45.760          | -16,9            |
| Adingabeen %-a adingabeak dituzten etxeko unitateetan                                    | 15,85             | 13,16           |                  |

**Diru-sarreraren pobrezia-intentsitatea murrizketa, adingabeak dituzten etxeko unitateetan**

Adierazlea: diru-sarreraren pobrezia-atalasearekiko distantzia (%)

| DIRU-SARREREN POBREZIA-ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEAK DITUZTEN ETXEOEN UNITATE-MOTA | Pobrezia-atalasera dagoen distantzia (%) |                 |                            |
|----------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|-----------------|----------------------------|
|                                                                                  | DSBE/EPO/GLL gabe                        | DSBE/EPO/GLLein | Ehuneko puntuen murrizketa |
| DSBE/EPO/GLL sistemarako sarbiderik ez duten etxeko unitateak                    | 31,4                                     | 31,4            | 0,0                        |
| DSBE/EPO/GLL sistemara sarbidea duten etxeko unitateak                           | 74,7                                     | 19,9            | -54,8                      |
| <b>GUZTIRA</b>                                                                   | <b>53,6</b>                              | <b>25,5</b>     | <b>-28,1</b>               |

**4.2 Arauaren alderdi zehatzen eragina haurren, nerabeen eta familien premien gainean.**

Dokumentu honetan aipatu diren artikuluez gain, haur, nerabe eta familien premiak jasotzen eta horietan eragiten duten alderdi ugari daude arauan.

Ikusi dugu jada 9. artikuluan, non lehen aldiz jasotzen baitira Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Sozialaren prestazio, laguntza eta zerbitzuen **titularren eta onuradunen** eskubideak. Horrela, pertsonak legearen erdigunean jartzen dira, betiere "haurrak babesteko" borondate hori kontuan hartuta.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren ezaugarriak definitu ditu 11. artikulua, eta horien artean, garrantzi berezikoa da honako hau aitortzea: "**d) Mugagabea**", beraz, emakidak eragin zuten arrazoiek irauten duten bitartean eta eusteko baldintzak eta betebeharrak betetzen diren bitartean iraungo du." Horri esker, adingabeen bizikidetz-unitateari **behar duen egonkortasuna** emango zaio garapen pertsonalerako, inklusioa bultzatu eta erraztu ahal izateko. Gainera, 12. artikulua arabera, "Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Soziala osatzen duten prestazio ekonomikoak **bateragarriak** izango dira **elkarren artean**".

Haurrak babesteko arauaren beste aldaketa garrantzitsu bat 16. artikuluan dago (*Titularra izateko baldintza orokorrak*); izan ere, artikuluko horren c) letran EAEko udalerriren **batean erroldatuta egoteko eta benetan bizitzeko eskakizuna** 3 urtetik 2 urtera jaisten da, adingabeak osatzen dituzten bizikidetza-unitateetako kide izanez gero. Horrez gain, hurrengo artikuluetan (17-19) malgutu egiten dira kalteberatasun bereziko egoeretan bete beharreko baldintzak, aurreko paragrafoetan aipatu direnak, bai eta 26. artikulua ere, **ezohiko bizikidetza-unitateak** jasotzen dituenak.

Haurren eta nerabeen babesa ere agerian geratzen da bizikidetza-unitate bakoitzari dagozkion **prestazio ekonomikoen zenbatekoa** zehazterakoan, aurreko legeriarekin alderatuta hobetu egiten baitira prestazio horiek.

30. artikulua honako hau ezartzen du: "Bizikidetza-unitate bati dagokion gehieneko errenta bermatua zehazteko, honako hauei dagozkien zenbatekoen batura egin behar da: **oinarrizko zenbatekoa, bizikidetza-unitateko kide bakoitzeko osagarri indibidualak eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriak lotutako osagarriak.**

31. artikulua arabera oinarritzko zenbatekoa "kopuru finkoa da, eta bizileku batean oinarrizko premiak asetzerak bideratzen den gutxieneko gastua adierazten du. Osagarri indibidualekin eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriak lotutako osagarriekin batera, diru-sarrerak bermatzeko prestazioari aplikatu beharreko gehieneko errenta bermatua zehazteko balio du, baita gizarte-larrialdietarako laguntzen zenbatekoa finkatzeko ere.

Indarrean dagoen legeria dagokionez, aldaketarik handiena 32. artikuluan jasotzen da (*Banakako osagarriak eta bizikidetza-unitatearen ezaugarriak lotutako osagarriak*), 1. apartatuan esaten baitu banakako osagarriek bizikidetza-unitatearen gastuen banaketa kuantifikatzen dutela, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera, eta ehuneko bera aplikatzen zaiela prestazioaren titularrari gehitzen zaizkion pertsona gehigarriak. Beraz, ez dago banakako osagarrien gehieneko kopururik, eta horrek arindu egingo du adingabe askok osatutako bizikidetza-unitateen karga.

Gainera, artikuluko bereko 3. puntuan honako hau ezartzen da: "**Bizikidetza-unitatearen ezaugarriak lotutako osagarriak** guraso bakarrek bizikidetza-unitateei, genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima den pertsona batek osatutakoei, gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima direnek osatutakoei, pentsiodunek osatutakoei eta % 45eko edo

gehiagoko desgaitasuna duen pertsona batek edo gehiagok osatutakoei aplikatuko zaizkie, arrazoi horrengatik pentsiorik jasotzen ez badute (...).

34. artikuluan **zenbatekoa zehazteko prozedura** ezartzen da. Berritasuna hiru hilean behin ezartzea da, eta helburua egonkortasun ekonomikoko aldi ez hain aldakorrek ezartzea da, adingabeen onerako izan dadin.

Arreta haurren babesean jarrita, 43. artikuluan, bizikidetza-unitateak babesteko mekanismo bat sartzen da, orain arte ezezaguna, eta garrantzi handikoa adingabeek osatutako unitateentzat. **Etendura partziala** sartzen da prestazioaren **ordainketan**, betebehar jakin batzuk betetzen ez badira. Horrela, eteteak BUren ezaugarriei lotutako osagarriei eta osagarri indibidualari soilik eragingo die, ez-betetzearen erantzulea prestazioaren titularra bada, edo aipatutako osagarrietako azkenari, ez-betetzea onuradunetako bati egotzi ahal bazaio.

Horrela, bete egiten da Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko helburua, eta, aldi berean, kontuan hartzen da Eusko Legebiltzarraren 95/2016 Legez besteko Proposamena, gizarte-laguntzak erregulatzen dituen araudia aldatzeari buruzkoa, 2016ko abenduaren 15ean onartua, Eusko Jaurlaritzari eskatu baitzion adostasun zabaleko hitzarmen sozial bat bultzatzea, besteak beste, “krisiak eragindako pobrezia-egoera berriei erantzuteko; horretarako, bizikidetza-unitateak eta horietako kide bakoitzarena berrikusiko dira, euren babesa hobetzeko eta gizarte-larrialdiko egoerak kronifikatzea ekiditeko”.

48. artikulua sartu da, **adingabeak daudenean bizikidetza-unitatea azkentzearen ondorioei** buruzkoa: prestazioa jasotzen duen eta adingabeak dituen bizikidetza-unitatea azkentzen bada, diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortuko zaie, betiere baldintza batzuk betetzen badira.

**Zehapen-prozedurari** dagokionez, 95. artikuluan aurreikusten da 16 urtetik beherakoak ez direla izango tipifikatutako arau-hausteen erantzule, baina guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, harrera edo legezko zeien egitatezko zaintza dutenak izango dira, hurrenkera horretan, adingabeek egindako arau-hausteen erantzule, ez-zilegi administratiboak egitea prebenitzeko betebeharra ez betetzeagatik.

100. artikuluan aurreikusten da hamasei urtetik gorako eta hemezortzi urtetik beherako arduradunek aukera izango dutela interes sozialeko prestazioak egiteko, 99. artikuluan ezarritako zehapenen orde, haien berariazko baimenarekin betiere. Prestazio horiek adingabetasunera egokitutako aldietan luzatuko dira. Horrela, zehapen-arloko legezkotasun-printzipioa

errespetatuko da.

Gizarte-intereseko prestazioak adingabeentzat bereziki egokiak direla jo da, beren hezkuntza-helburuagatik eta helburu hori betetzearekin lotutako bermeengatik.

#### **4.3 Araua onartzeak ekar ditzakeen aldaketen eta emaitzen aurreikuspena**

Aurreikusten da izapideak arintzeak, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak eskuratzea errazteaz gain, pertsonen (eta laguntzen dieten adingabeen) behar aldakorrei azkarrago erantzutea ahalbidetuko duela.

Adingabeek osatutako bizikidetza-unitateen benetako bizilekua eta erroldatze-aldia murrizteak orain arte zegoena baino estaldura handiagoa ematea ahalbidetuko duela aurreikusten da. Ildo beretik, ezohiko bizikidetza-unitateetarako baldintza malguen bidez, kalteberatasun bereziko egoeretan dauden biztanleen segmentuak handitu dira.

Bereizketa-tresnak, GPIP eta zerbitzu-zorro zabala premien arabera egokituko direlakoan gaude, eta BUak ekonomikoki egonkortzea aurreikus daiteke –prestazioaren mugagabetasunaren, zenbatekoa hiru hilean behin eguneratzearen, etete partzialaren eta, adingabeak dituzten bizikidetza-unitateei prestazioak amaituz gero, aurreikusitako salbuespenaren ondorioz–. Hala, horrek guztiak ingurune onuragarriagoak sortzen lagunduko du, ez bakarrik oinarritzko premiak asetzeko, baita bazterkeriatik irten eta bizitza duina garatzeko aukera ematen duten faktoreak indartzeko ere.

Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Soziala osatzen duten zerbitzuen arteko koordinazioa eta komunikazioa bultzatzeak, bai eta elkarreragingarritasunak eta beste tresna batzuk bultzatzeak ere, hala nola adimen artifizia (79. artikulua), arauaren helburuak lortzen lagunduko dute.

Familiarekin (edo ingurunearekin) zuzenean lotuta, eta, beraz, adingabeen garapenarekin zeharka, bizikidetza-unitatea osatzen duten helduen enplegarritasunaren faktorea dago, diagnostikoa eta dagokion ibilbidea ezarri ondoren enplegarriak direnak. Zenbait neurri ezartzen dira, enplegarritasuna eta, hala badagokio, laneratzea sustatzeko. Hala, enplegura bideratutako zerbitzuez gain (122. eta 123. artikulua), horien bidez enplegua lortzeko aukerak sustatzen baitira, enplegurako pizgarri batzuk ezartzen dira, mugagabeak izango direnak, eta, horrela, enpleguari eusten laguntzen da, BUarentzat ekonomikoki onuragarriagoa izan dadin enplegua izatea, aldi baterakoa eta partziala izan arren, ez edukitzea baino. Horrela, "Pobreziaren



tranpatik<sup>5</sup> irteten lagunduko litzateke, enplegarritasunaren barruan lehen urratsak emanez.

Garrantzitsua da, gainera, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osatzen duten prestazio eta zerbitzuek onuradunen ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin lotutako beste alderdi askotan dituzten ondorio positiboak aipatzea.

Helburu hori oinarri hartuta, kontziliazioa errazteko zenbait neurri arautzen dira. Neurri horiek, genero-ikuspegitik antolatzen diren beste askoren artean<sup>6</sup>, haurren eta familiaren ongizatean eragingo dute zuzenean.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat guraso bakarreko familiei (gehienetan ama) ematen zaien estaldura berezia da. Garrantzitsua da gogoratzea, gainera, horrelako familiek arrisku handia dutela bazterketa-egoeretan egoteko. Enplegua lortzeko zailtasunak dira pobrezia eragile handiena. Malgutasuneko eta kontziliazioko ekimen guztiek enplegu jasangarria lortzea erraztuko dute.

|                            | Sistemara sarbidea duten eta pobreziatik ateratzen diren adingabeak | Sistemara sarbidea duten eta pobreziatik ateratzen ez diren adingabeak | Benetako pobrezian dauden adingabeak, sistemarako sarbiderik gabe | Pobrezia-arriskuan | Gainerako adingabeak |
|----------------------------|---------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|--------------------|----------------------|
|                            | Abs.                                                                | Abs.                                                                   | Abs.                                                              | Abs.               | Abs.                 |
| Seme-alabak dituen bikotea | 6.273                                                               | 12.569                                                                 | 12.226                                                            | 31.068             | 269.308              |
| Guraso bakarreko familiak  | 6.316                                                               | 10.846                                                                 | 2.614                                                             | 19.776             | 18.096               |
| Gainerakoak                | 584                                                                 | 310                                                                    | 530                                                               | 1.425              | 7.963                |
| <b>Guztira</b>             | <b>13.173</b>                                                       | <b>23.725</b>                                                          | <b>15.371</b>                                                     | <b>52.268</b>      | <b>295.367</b>       |

**Proiektuan egin diren aldaketak edo zuzenketak, haurren, nerabeen eta familien premiak asetzeko eta eskubideak erabiltzeko oztopoak zuzentzeko edo egoera horiek konpontzeko, edo, egoera behar bezain ona ez baldin bada, erabilera indartzeko.**

Arau-proposamenaren xedea da, oro har, urteetan zehar hautemandako disfuntzioak zuzentzea, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen izapideak egitea eta Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Sozialera sartzea erraztea, hartzaileen egonkortasuna eta segurtasun juridikoa sustatuz, eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitatea osatzen duten adingabeak ere

<sup>5</sup>Bazterkeria-egoera batetik edo pobrezia-arriskuko egoera batetik irtetea eragozten duten inguruabarrak. Ekonomia horiek duten aurrezki-maila txikiaren ondorioz, inbertsioa eskasa da, eta ez da nahikoa hazkunde ekonomiko handiagoa sortzen duten proiektuei ekiteko. Pobrezia gorpil zoroa ere deitzen zaio.

<sup>6</sup> 20210505 DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN GENERO-INPAKTUAREN TXOSTENA-es

onuradun izan daitezzen.

Aurreproiektuan inpaktu positiboa lortzen laguntzen duten neurri batzuk proposatzen dira, hau da, estaldura zabaltzeaz eta hurrek osatutako familietan zenbatekoak handitzeaz gain, eskuragarritasuna errazten da prozedura erraz eta arinagoen bidez, eta bereziki kalteberak diren kolektibo berriak kontuan hartzen dira, non kontuan hartzen baitira ardurapean dauden adingabeak eta beste edozein pertsona.

Araudiak betetzen dituen helburuak kontuan hartuta, inpaktu positiboa oinarritzko premiak asetzetik askoz haratago doa, izan ere, asmo handiz, bazterketa-egoeran dauden pertsonak egoera horretatik ateratzea eragozten edo zailtzen dien gupil zoroa apurtzea du xede. Egoera horretatik ateratzeko behar den bultzada emango duten hainbat mekanismo eta tresna zehazten dira.

**4.4 Arauaren aplikazioaren gaineko gomendioak eta neurri osagarriak eta/edo konpentsatzeko neurriak hartzeko gomendioak, haurrengan, nerabeengan eta gazteengan izan ditzakeen eragin kaltegarriak baztertzeko edo eragin onuragarriak bermatzeko eta indartzeko.**

- Ez da inolako eragin negatiborik aurreikusten araua aplikatzen denetik aurrera.
- Horren eragin positiboa bermatu eta indartzeko, aurreproiektuak jada honako hauek aurreikusten ditu: elkarrengarritasuna eta administrazioen arteko komunikazioa bultzatzeko beharrezkoak izango diren funtsezko arau-garapenak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema Soziala osatzen duten zerbitzuen arteko ezinbesteko lankidetzak, hala nola enplegu-, gizarte-, osasun-, etxebizitza- eta hezkuntza-zerbitzuak.
- Gainera, beharrezkoa izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua bere funtzionamendu-aldaketetara egokitzea, aldaketa horiek inplizituki baitaude artikuluetan: Pertsonen prestakuntza, prozesuen egokitzapena, sistemen egokitzapena, etab. Horrela, araua indarrean jarri ondoren, eraginkorra eta efikaza izango da, eta azkar erantzun die pertsona guztien premia aldakorrei, haurren eta nerabeen babesa areagotzea dakarten aldaketa guztietan arreta berezia jarrita.

Gasteizen, 2021eko abuztuaren xx  
Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria,  
**Francisco Pedraza Moreno.**

(Elektronikoki sinatua)